



AIARAKO UDALAK 2021eko URRIAREN 21ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera
jauna

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendibil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko urriaren hogeita batean, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa modu telematikoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

EZ DA BERTARATU:

Susana Martín Benavides andrea

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekiten diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2021eko irailaren 23an eginiko ohiko bilkuraren akta

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) esku hartu du idazkariari esateko eta eskertzeko gai-zerrendan bildutako puntuek duten zehaztasuna.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, hala badagokio, Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso de Menagarai Ikastetxearen arteko 2021eko lankidetzeta-hitzarmena, zuzeneko dirulaguntza emateko



Udalbatzari jakinarazi zaio puntu honi buruzko aldeko irizpena eman duela Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeak 2021eko urriaren 13an.

Ez denez iruzkinik egin, gaia bozkatu da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Honako hau dio:

IKUSI DA.- Amor Misericordioso de Menagarai Ikastetxeak ikasleekin zentroan egiten duen gizarte-lana eta Aiarako Udalak lan hori sustatzeko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso Ikastetxearen arteko lankidetzaz hitzarmena, zentroak 2021ean ikasleekin egingo dituen ekimenak eta jarduerak diruz laguntzeko.

IKUSI DA.- Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen aldeko txostena, 2021eko urriaren 13koa.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmen honek Aiarako Udalak Amor Misericordioso Ikastetxearen aldeko zuzeneko dirulaguntza arautzen du eta horretarako 2021eko udal-aurrekontuan partida izenduna dago; horrek hitzarmena sinatzeak Udalarentzat suposatuko duen gastua bere gain hartzeko kreditu nahikoa eta egokia du.

Udalbatzak Osoak, bertaratutako guztien adostasunez (Udalbatza 11 zinegotzik osatzen dute, 10 bertaratu dira), **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso Ikastetxearen arteko 2021eko ekitaldirako lankidetzaz hitzarmena onestea, zentroak ikasleekin egingo dituen ekimenak eta jarduerak diruz laguntzeko. Horren bidez, 2.000 euroko zuzeneko dirulaguntza emango zaio. Hona hemen hitzarmenaren testua:

AIARAKO UDALAREN ETA AMOR MISERICORDIOSO
DE MENAGARAI ESKOLAREN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMEN PROPOSAMENA. 2021

Arespalditzan, 2021eko -ren -(a)n.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:



Alde batetik, Gentza ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko alkatea (NAN zk.: 44.686.448-R), erakunde horren ordezkaria, eta Udaleko NAIARA LAZPITA MARCO andreak lagunduta NAN zk.: 45676325G, ekitaldiaren fede ematen baitu.

Beste aldetik, Elisa PELAZ BAÑOS andrea, adin nagusikoa, (NAN zk.:P), AMOR MISERICORDIOSO de Menagarai Eskolaren zuzendaria.

ESKU HARTZEN DUTE:

Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkari-tan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorriz.

Bigarrenak, AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxearen ordezkaria eta honen izenean, IFK zk. R-0100129-F, haren nortasuna eta ordezkari-tza Eskolak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu da, aktaren fotokopia aurkeztuz, non zuzendari aukeratu eta izendatzen den (hitzarmen honi erantsi zaio 1. dokumentuan).

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **lankidetz-hitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

I.- *Aiarako Udalak, AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxeak egiten duen gizarte-lana kontuan hartuta, besteak beste, hitzarmen honen bidez jardungo du. Urtean egingo dituen jarduerak garatzeko emango zaion urteko dirulaguntza arautzen du.*

II.- *Aplikatu beharreko legeria zehatz bete eta toki-erakundeek lankidetz-hitzarmenak sinatzeko duen gaitasuna kontuan hartu ondoren, bi aldeek lankidetz-hitzarmen hau formalizatu dute eta bete beharko dituzte honako*

ESTIPULAZIOAK:

LEHENENGOA.- *Aiarako Udalak hitzarmenaren honekin duen helburua da AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxeak urtean egingo dituen ekimen eta jarduera sustatzea; horiei esker ikasleen garapen pertsonala bultzatuko eta bizi-kalitatea hobetuko da. Hitzarmen honen gain diruz lagunduko diren jarduerak honako hauek izango dira:*

- *Hezkuntza jarduera eta/edo ikasleen bizitza hobetzen edo errazten duten altzariak, erremintak edo tresnak erostea.*
- *Ikasleen integrazioa eta garapen pertsonala erraztuko duten kultura- edo aisialdi-jarduerak edo ekitaldiak egitea edo antolatzea.*



BIGARRENA. - Aiarako Udalak garatu beharreko sustapen-jardueraren edukia **AMOR MISERICORDIOSO** Ikastetxeak aurreko atalean deskribatutako jardueren ondorioz sortutako gastuetarako emandako dirulaguntzan zehazten da.

HIRUGARRENA. - Administrazio honek jarduera sustatzeko emango duen dirulaguntza goian deskribatutako jarduerak garatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko izango da.

Dirulaguntza jarduerak egitean sortutako gastuen arabera kalkulatu da, eta Ikastetxeak kontzeptu horietarako beste dirulaguntza posible batzuetatik lortzen dituen diru-sarrerak deskontatuko dira.

Hitzarmen honi dagokion udal-dirulaguntza urtean gehienez **BI MILA (2.000,00) EURO**koa izango da.

LAUGARRENA.- Udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO (2.000 €** gehienez) zenbateko horri dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak edo Aiarako Udalarari erakunde horiei ziurtagiri horiek eskatzeko ahalmena ematen dion agiria sinatzea.
- Udal-dirulaguntzaz gain, jasotako diru-sarrera guztiak aitortu behar dira (AFaren dirulaguntza, eta egongo balira, **KONTRATU HONEKIN DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA ETA/EDO MATERIALARI** dagozkionak) (betetzeko inprimakia erantsita).
- Diruz lagundutako jardueren edo programen gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
- Programaren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio- edo azalpen-fitxa eta hura egin izanaren zinpeko aitortpena, eta/edo, hala badagokio, dirulaguntza honen bidez eskuratu diren altzarien, tresnen edo lanabesen deskribapena).
- Gastua justifikatzen duten fakturen eta ordainketa-dokumentuen kopia.

Lehenengo estipulazioan adierazitako baldintzak betetzen ez badira, ez da dirulaguntzarik emango eta aurretik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da.

Hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa 2022ko urtarrilaren 31rako aurkeztu ezean, ez da dirulaguntza emango eta aurretik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da.

Dirulaguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.

BOSGARRENA.- Diruz lagundutako jarduerak egiteko epea, salbuespenak salbuespen, dirulaguntzaren urteko denbora-mugetara egokituko da, 2021. urtea hain zuzen ere.

SEIGARRENA.- Dirulaguntza ordaintzeko forma hau izango da: Aiarako Udalak hitzarmena sinatu ondoren erabakitako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du. Gainerako % 20a ordainduko du hitzarmen honen **LAUGARREN** klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.



Aiarako Udalak edozein momentutan egokitzat jotzen duen informazioa eskatu ahal izango du.

ZAZPIGARRENA. - *AMOR MISERICORDIOSO* Ikastetxeak Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesletza adierazi beharko du bere publizitatean.

ZORTZIGARRENA. - *AMOR MISERICORDIOSO* Ikastetxeak hitzarmen honetan hartutako betebeharrak beteko ez balitu, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian aurreikusitako erantzukizunen eta zehaztapenen araubidea aplikatu dakioko.

Adostutakoarekin konforme daudela adierazteko, alderdiek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, ezabaketarik eta zuzenketarik gabe, dokumentua osatzen duen folio bakoitzean. Hura betetzeko konpromisoa hartu dute goiburuan adierazitako leku eta orduan.

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta Sin.- Naiara Lazpita Marcos.

Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.

AMOR MISERICORDIOSO IKASTETXEAREN ZUZENDARIA,

Sin.- .

BIGARRENA: Alkate-udalburuari aipatutako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Amor Misericordioso de Menagarai Ikastetxeari jakinaraztea, hitzarmena sina dezan.

3.- Onestea, hala badagokio, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko Lankidetzeta Hitzarmena zuzeneko dirulaguntzaren bidez 2021. Urtean eskolaz kanpoko jarduerak egiteko

Udalbatzari jakinarazi zaio puntu honi buruzko aldeko irizpena eman duela Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeak 2021eko urriaren 13an.

Iruzkirik egin ez denez, gaia bozkatu da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.



Horren arabera, gainera, honako hau

IKUSI DA. - Aiarako Udalaren interes publikoa haurrek kultura- eta kirol-jarduerak egin ditzaten babestu eta sustatzeko.

IKUSI DA. - Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko 2021eko lankidetzeta-hitzarmena, eskola-orduetatik kanpoko jarduerak finantzatzeko (2021-2022 ikasturtea).

AINTZAT HARTU DA. - Udal-aurrekontuan hitzarmen honek dakartzan gastuak bere gain hartzeko kreditu nahikoa eta egokia dagoela.

Udalbatzak osoak, bertaratutako guztien adostasunez (Udalbatza 11 zinegotzik osatzen dute, 10 bertaratu dira), **ERABAKI DU:**

Lehenengoa. - Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzeta hitzarmena onestea urtean eskolaz kanpoko jarduerak egiteko gastuak finantzatzeko (2021-2022 ikasturtea). Hitzarmen horren bidez 2.200 € zuzeneko dirulaguntza emango zaio. Hona hemen hitzarmenaren testua:

**“AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO
GURASO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN
PROPOSAMENA, 2021- URTEA (2021-2022 ikasturtea)**

Arespalditzan, 2021eko -ren -(a)n.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, Gentza ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko alkatea (NAN zk.: 44.686.448-R), erakunde horren ordezkaria, eta Udaleko NAIARA LAZPITA MARCO andreak lagunduta NAN zk.: 45676325G, ekitaldiaren fede ematen baitu.

Beste aldetik, andrea, adin nagusikoa (NAN zk.:), “Etxaurren Ikastolako” Guraso Elkarteko presidentea.

ESKU HARTZEN DUTE:



Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkaritza, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorriz.

Bigarrenak, aipatutako Elkartearen ordezkaria eta honen izenean, haren nortasuna eta ordezkaritza Elkartek berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu da, aktaren fotokopia aurkeztuz, non zuzendari aukeratu eta izendatzen den (hitzarmen honi erantsi zaio 1. dokumentuan).

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **lankidetzahitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

***I.-** Aiarako Udalak, udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak zaindu eta sustatzeko interes publikoari erantzuteko, hitzarmen honetan zehazten diren bitartekoak eta lankidetzak emango dizkio guraso-elkarteari, horrek bere helburuak lor ditzan.*

***II.-** Udalak interes berezia du eskola-ordutegitik kanpoko jarduerak, eskolaz kanpoko jarduerak, mantendu eta sustatzeko.*

***III.-** "Etxaurren IGE" elkarteak gizarte- eta kirol-lan handia egiten duela udalerrian, haurren artean zehazki, praktika hauek sustatzen dituelako haurren artean, ikastetxeko ohiko jardueraren osagarri.*

***IV.-** "Etxaurren IGE" elkarteak beti adierazi du interes handia Aiarako Udalarekin elkarlanean aritzeko, hurrekin zerikusia duten kultur- eta kirol-jarduerak antolatzerako orduan.*

***V.-** Aiarako Udalak erabaki du, bere sustapen-jardueraren barruan, haurerantzako kultura- eta kirol-jarduerak udalerrian sustatzea. Hitzarmen horrek Etxaurren Ikastolan 2021-2022 ikasturterako egindako eskolaz kanpoko jardueren gastuen zati bat ordaintzeko zuzeneko dirulaguntza emango du, ikastetxeko eskolaz kanpoko jardueren egutegiaren arabera.*

***VI.-** Aplikatu beharreko legeria zehatz bete eta toki-erakundeek lankidetzahitzarmenak sinatzeko duen gaitasuna kontuan hartu ondoren, bi aldeek lankidetzahitzarmen hau formalizatu dute eta bete beharko dituzte honako*

ESTIPULAZIOAK:

***LEHENENGOA.-** Hitzarmen honen helburua da Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolaren kultura- eta kirol-jarduerak eta jarduerak osagarri sustatzea eta bultzatzea; halaber, familiei zuzendutako prestakuntza ere sustatu nahi du "Etxaurren IGE" elkartearen bidez.*



BIGARRENA. - Aiarako Udalak garatu beharreko sustapen-jardueraren edukia eskolaz kanpoko jarduerak dakartzan gastuen zati bati arreta ematean eta dirulaguntza ematean datza.

Jarduera egiteko beharrezkoa den materiala elkaratearen kontura izango da.

2021-2022 ikasturterako gehieneko dirulaguntza 2.200,00 € izango da.

HIRUGARRENA. – Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea ikastetxearen egutegi ofizialari egokituko zaio. Hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bidez argitaratu eta jakinaraziko du, eta 2022ko ekainean amaituko da.

LAUGARRENA. - Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau izango da: Aiarako Udalak hitzarmena sinatu ondoren dirulaguntzaren % 80 ordainduko du Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiria lehenik aurkeztuta. Gainerako % 20a ordainduko da hitzarmen honen hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

BOSGARRENA. - Urteko Udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** (2.200 € gehienez) zenbateko horri dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako dirulaguntza guztien aitortpena.

b) Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

c) Diruz lagunduko den jarduerari buruzko honako agiri hauek:

- Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
- Diruz lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko aitortpena).
- Amaitutako urteko memoria ekonomikoa (jarduera-gastuak + funtzionamendu-gastuak), gastuak eta diru-sarrerak adierazita, dagozkion fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuta.

Lehenengo estipulazioan adierazitako baldintzak betetzen ez badira, ez da dirulaguntzarik emango eta aurretik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da.

Hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa 2022ko urtarrilaren 31rako aurkeztu ezean, ez da dirulaguntza emango eta aurretik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da.

Dirulaguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.



SEIGARRENA. - *El "Etxaurren IGE"- elkarteak Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesletza duen publizitatea jaso beharko du.*

ZAZPIGARRENA. - *"Etxaurren IGE" elkarteak hitzarmen honetan hartutako betebeharrak beteko ez balitu, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian aurreikusitako erantzukizunen eta zehaztapenen araubidea aplikatuko dakioko.*

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta Sin.- Naiara Lazpita Marcos.

Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.

GURASO ELKARTEAREN ZUZENDARIA

Sin.- .”

BIGARRENA. - Alkate-udalburuari aipatutako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Etxaurrek Ikastolako Guraso Elkarteari jakinaraztea, hitzarmena sina dezan.

4.- Onestea, hala badagokio, Aiarako Udalaren eta “Asociación Gurasoen Elkarte Babio” elkartearen arteko 2021eko lankidetzeta-hitzarmena; honen bidez eskolaz kanpoko jarduerak egiteko zuzeneko dirulaguntza ematen da

Udalbatzari jakinarazi zaio puntu honi buruzko aldeko irizpena eman duela Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeak 2021eko urriaren 13an.

Ez denez Iruzkirik egin, gaia bozkatu da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Testuak honako hau dio:



aurkeztuz, non "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkartearen zuzendari aukeratu eta izendatzen den (hitzarmen honi erantsi zaio 1. dokumentuan).

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetz**a-hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

***I.-** Aiarako Udalak, udalerrriaren gizarte-, kultura- eta kirol-jarduerak babestu eta sustatzeko interes publikoari erantzuteko, hitzarmen honetan zehazten diren bitartekoak eta lankidetz*a emango dizkio "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteari, horrek bere helburuak lor ditzan.

***II.-** Udalak interes handia du jarduera osagarriak eta eskola-ordutegitik kanpoko jarduerak (eskolaz kanpoko jarduerak) egiten jarraitu eta sustatzeko.*

***III.-** "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak gizarte-, kultura- eta kirol-lan handia egiten duela udalerrian, batez ere gazteen artean kultur- eta kirol-jarduera handia sortzen duen erakundea delako eta gazteen eta familien artean gizarte-, kultura-, arte- eta kirol-jarduerak egitea sustatzen duelako, ikastetxearen ohiko jardueraren osagarri.*

***IV.-** "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak beti adierazi du Aiarako Udalarekin elkarlanean aritzeko interes handia, eta gazteekin eta haien familiarekin gizarte-, kultura-, arte- eta kirol-jarduerak antolatze*ko.

***V.-** Aiarako Udalak, bere sustapen-jardueraren barruan, udalerrian gazteentzako eta haien familientzako kultura- eta kirol-jarduerak sustatzea erabaki du eta sustapen hori hitzarmen honen bidez artikulatzea erabaki du. Hitzarmenak Zarobe Institutuan 2021-2022 urtean egindako eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien gastuen zati bat ordaintzeko zuzeneko dirulaguntza eratzen du, ikastetxearen jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren egutegiaren arabera.*

***VI.-** Aplikatu beharreko legeria zehatz bete eta toki-erakundeek lankidetz*a-hitzarmenak sinatzeko duen gaitasuna kontuan hartu ondoren, bi aldeek lankidetza-hitzarmen hau formalizatu dute eta bete beharko dituzte honako

ESTIPULAZIOAK:

***LEHENENGOA.** - Hitzarmen honen helburua da Aiarako Udalak Zarobe Institutuaren jarduera soziokulturala, artistikoa eta kirol-jarduera eta jarduera-osagarria sustatzea, baita familiei zuzendutako prestakuntza ere, "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkartearen bidez.*



BIGARRENA. - Aiarako Udalak garatu beharreko sustapen-jardueraren edukia eskolaz kanpoko jarduerak dakartzan gastuen zati bati arreta ematean eta dirulaguntza ematean datza.

Jarduera egiteko beharrezkoa den materiala elkar-tearen kontura izango da.

2021-2022 ikasturterako gehieneko dirulaguntza 1.420,00 € izango da.

HIRUGARRENA. - Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea ikastetxearen egutegi ofizialari egokituko zaio. Hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bidez argitaratu eta jakinaraziko du, eta 2022ko ekainean amaituko da.

LAUGARRENA. - Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau izango da: Aiarako udalak hitzarmena sinatu ondoren dirulaguntzaren % 80 ordainduko du. Gainerako % 20a ordainduko da hitzarmen honen hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

BOSGARRENA.- Urteko Udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** (1.420,00 € gehienez) zenbateko horri dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako dirulaguntza guztien aitorpena.

b) Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

c) Diruz lagunduko den jarduerari buruzko agiri hauek:

- Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
- Diruz lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-ditxa eta egin izanaren zinpeko aitorpena).
- Amaitutako urteko memoria ekonomikoa (jarduera-gastuak + funtzionamendu-gastuak), gastuak eta diru-sarrerak adierazita, dagozkion fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuta.

Lehenengo estipulazioan adierazitako baldintza betetzen ez badira, ez da dirulaguntzarik emango eta aurretik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da.



Hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa 2022ko urtarrilaren 31rako aurkeztu ezean, ez da dirulaguntza emango eta aurretik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da.

Dirulaguntza hau ez da Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin bateragarria.

SEIGARRENA.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesletzeta duen publizitatea jaso beharko du.

ZAZPIGARRENA.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES"-ek hitzarmen honetan hartutako betebeharrak beteko ez balitu, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian aurreikusitako erantzukizunen eta zehaztapenen araubidea aplikatuko dakioko.

Adostutakoarekin konforme daudela adierazteko, alderdiek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, ezabaketarik eta zuzenketarik gabe, dokumentua osatzen duen folio bakoitzean. Hura betetzeko konpromisoa hartu dute goiburuan adierazitako leku eta orduan.

ALKATE-UDALBURUA,
Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,
Sin.: Naiara Lazpita Marcos.

"GURASOEN ELKARTEA BABIO
ASOCIACION PADRES Y MADRES" ZUZENDARIA,

Sin.: andrea"

BIGARRENA. - Alkate-udalburuari aipatutako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Gurasoen Elkarte Babiori jakinaraztea, hitzarmena sina dezan.

5.- Onestea, hala badagokio, kreditua aldatzeko espedientea: kreditu gehigarriko 6/2021 espedientea



Udalbatzari jakinarazi zaio puntu honi buruzko aldeko irizpena eman duela KSoziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordek 2021eko urriaren 13an.

Iruzkirik egin ez denez, gaia bozkatu da eta korporazioko kideek aho batez onetsi dute.

Honako hau dio:

IKUSI DA. - Gastu Orokorretarako diruzaintzako gerakinaren zati bat erabiltzeko beharra, 2020ko aurrekontuaren likidazioa ekarri duena, 2021erako Udal-aurrekontuko hurrengo gastu-partidei kreditu gehiago emateko eta 2021erako gastuen aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko, 2022ra arte itxaron ezin duten gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA.- Organo kontu-hartzaileak aurrekontu-egonkortasuna ez-betetzearen ondorioetarako egindako txostena, Arabako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 18/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak aldatua) jasotakoaren arabera. Txosten hori Udalbatzari bidaliko zaio, kreditu-aldaketa honekin batera berri izateko.

AINTZAT HARTU DA. - Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez erabakita (10 zinegotzi bertaratu dira 11tik) **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- kreditu gehigarria onestea jarraian zerrendatzen diren aurrekontu-aplikazioetan:

AURREKONTU- EGOZPENA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA / €
943.734.000	DIRULAGUNTZA JJAri OBRAGATIK	35.000 €.
943.734.001	DIRULAGUNTZA JJAri ORDAINSARI TEKNIKOENGATIK	35.000 €
342.625.004	LUIAONDO ETA ARESPALDITZAKO ESTALITAKO PISTA-SAREAK LORTZEA	5.778,21 €
342.623.000	BIZIKLETEN MANTENTZE-GUNEA	5.500 €



ZENBATEKOA GUZTIRA: 81.278,21 €.

Zenbatekoa ondoren zerrendatzen diren baliabideek finantzatzen dute; beraz, espedientea berdinduta dago eta ez da defizitik sortzen:

A. Gehitu beharreko diru-sarrereren partidak edo erabili beharreko diruzaintzako gerakinak:

<u>Diru-sarrereren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbatekoa/ €</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA HONDARRA	81.278,21 €
	GUZTIRA	81.278,21 €

Onetsitako kreditu gehigarrien osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrereren osoaren berdina da.

Bigarrena. - Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espedientea jendaurrean jartzea, 15 egun baliioduneko epean, interesdunek azter dezaten eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak jar ditzaten.

Hirugarrena. - Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat jotzea. Erreklamaziorik egonez gero, beste erabaki bat hartu beharko da eta hau onetsi edo baztertu.

6.- Aiarako Abeltzainen Elkartek aurkeztutako mozioa, Laudioko Aiarako hiltegi-zerbitzuari dagokiona

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH BILDU) zinegotzi jaunak hitza hartu du eta hurrengo testua irakurri du:

“Eskaera hau gaur hemen iritsi da sektorea azpiegiturarik gabe geratzen delako, gure harakinak eta gure bizilagunak hornitzeko hurbileko elikagaiak ekoizteko funtsezko zerbitzu publikorik gabe.

Hiltegi hori hainbeste baloratzen ditugun zero kilometroko produktu horiei lotuta dago eta, gainera, oinarritzko zerbitzua da gure ustiategi txikientzat.

Ez du balio zero kilometroko produktuak defendatzeko diskurtsoak egiteak, ez badira horiek babesteko erabakiak. Zerbitzu hori zuzenean lotuta dago hurbileko ekoizpenarekin, gure



ustiategiek ekoizten duten haragiaren kalitatearekin eta, beraz, baita gure herrietako elikagaien segurtasunarekin ere.

Orain badirudi itxiera garraio-kostu handiei emandako laguntzekin konpentsatu nahi dela. Laguntza horiek orain proposamenak isilarazten saia daitezke, baina inork ezin du ziurtatu etorkizunean mantenduko direnik.

Nola izango dira errentagarriak ustiategi txikiak gaur abelburu batzuk eta bihar beste batzuk lekutara eraman behar badituzte? Hildako animalien itzulera-gastuak oso handiak dira.

Sarri Aiarako sustraiez eta nekazaritzako eta abeltzaintzako tradizioaz hitz egin dugu, baina hiltegia ixteak zailtasunak gehitzea baino ez da. Egoera delikatu bati aurre egin behar dio; denok kontziente gara egoera horretaz, baina ez dugu ekintzekin, neurriekin, inbertsioekin babesten.

Klima-aldaketari aurre egiteko zerbitzu bat ere bada, eta ez du garraio gehiago bultzatzen, erabiltzaileengandik gertuen dauden instalazioak hobetzen baizik. Gakoa zerbitzu hori eskualderako funtsezkoa den edo ez da, eta horretan sinesten badugu, beharrezko instalazioak eta ekipamendua ematea borondate politikoaren kontua baino ez da. Beraz, galdera hau da: ba al dugu borondate politikorik zerbitzu hori babesteko eta baldintza onenetan funtziona dezan kudeaketa egokiak egiteko?

Nahi beste aitzakia jar daitezke, baina eskaera horretan laguntzen ez duena ez dago haiekin eta ez die benetan laguntzen.”

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da eta emaitza hau izan da:

ALDEKO BOTOAK: 4 (3 EH BILDU, 1 AIARA BATUZ)

KONTRAKO BOTOAK: 6 EAJ-PNV

Mozioa gehiengo osoz baztertu da.

7.- EAJ-PNV Udal-taldeak Aiarako Abeltzain elkarteak Laudioko hiltegi-zerbitzuari buruz aurkeztutako mozioari egindako zuzenketa

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) irakurri du EAJ-PNV Uda-taldeak Aiarako Abeltzain Elkarteak Laudioko hiltegi-zerbitzuari buruz aurkeztutako mozioari aurkeztutako zuzenketa.

Iratxe Parro Uzquino zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) abstenitu egingo dela esan du, ez datozelako bat jasotzen diren proposamenak abeltzainek eskatzen dutenarekin.



Koldo Mendioroz Goldaraz (EH BILDU) zinegotzi jaunak adierazi du mozio horrek ardua saihesteko balio duela. Irtenbide bakarra da hiltegia berriro irekitzea da eta ondoren bestelako neurri edo laguntzak hartu ahalko.

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez, gaia bozkatu da eta emaitza honako hau izan da:

ALDEKO BOTOAK: 6 EAJ-PNV
KONTRAKO BOTOAK: 3 EH BILDU
ABSTENTZIOAK: 1 AIARA BATUZ

Eta honako hau

IKUSI DA.- EAJ-PNV Udal-taldeak Aiarako Abeltzain elkarteak Laudioko hiltegi-zerbitzuari buruz aurkeztutako mozioari egindako zuzenketa.

IKUSI DA.- Lehen Sektoreko, Ekonomia Sustapeneko eta Enpleguko Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2021eko urriaren 13koa.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA. - EAJ-PNV Udal-taldeak Aiarako Abeltzain elkarteak Laudioko hiltegi-zerbitzuari buruz aurkeztutako mozioari egindako zuzenketa onestea. Horrek honako hau dio:

AIARAKO EAJ-PNV UDAL-TALDEAREN LAUDIOKO HILTEGIARI BURUZKO MOZIOA

JUSTIFIKAZIOA

Laudioko hiltegia duela pare bat hilabete itxi zen haren errentariak hiltegiaren kudeaketan zituen akats larriengatik; izan ere, erakunde eskudunek salatu zuten jada hiltegia, eta errentariari eta udaleko kideei prozedura judiziala ireki zaie.

Egindako kudeaketa desegokiak are larriagotzen ditu duela 50 urte inguru eraiki ziren eta denboraren poderioz hondatuz joan diren instalazioak dituen akatsak, eta ez da egokitzen animaliak hiltzearen arloan etengabe onetsi diren osasun-betebeharrei; hauek Udalak azken bi urteotan egindako inbertsioei esker partzialki zuzendu dira.

1996az geroztik, orain dela 25 urte, udalek 20.000 biztanletik gorako guneeetan hilketa-instalazioak jartzeko eskumena izateari utzi zioten, herri txikiagoetan lehenago ere izan zirelako.



Laudioko Udalak zerbitzua duela bi hilabete arte mantendu du, hiltegiaren kudeaketaren eta erabileraren egoera jasanezina bihurtu den arte eta, ondorioz, egun itxita dago.

Eraikina eta instalazioak oso hondatuta daude eta, beraz, guztiz berritu behar dira eta hiltegi berria eraiki behar da. Halere, Laudioko Udalak ez du hiltegi berri hori egiteko ahalmenik, ez eskumenengatik, ez baliabide ekonomikoengatik.

Horregatik, gure ustez, sortutako irtenbideari dimentsio autonomikotik heldu behar diote arlo horretan eskumenak dituzten erakundeek lurralde-azpiegitura berriak edo izaera autonomikokoak eraikita, edo Gipuzkoan edo mugakide diren probintzietan hilketa-lekuetara garraiatzeko laguntzen bitartez, beren instalazioetan sakrifizio handiagoak hartzeko gaitasuna izanik.

Horregatik, EAJ-PNV Udal-taldeak MOZIO hau aurkezten dio abeltzainen elkarteak bidalitako proposamenari:

1.- Aiarako Udalak Laudioko hiltegia ixteagatik udalerriko abeltzainen kezka adierazten du eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio konponbide bat azkar azter dezan; honek Laudioko hiltegia erabiltzen zuten abeltzainei arreta eman ahal izateko abelburuak hiltzeko.

2.- Aiarako Udalak Aiarako abeltzainen garraiorako laguntza-lerro bat ezarriko du berehala, hiltzeko beste leku batzuetara joateak dakarren gainkostua konpentsatzeko.

3.- Aiarako Udalak beharrezkotzat jotzen du azpiegitura autonomiko bat bultzatzea, bereziki Arabako eta Bizkaiko, lankidetzara publiko-pribatutik, abereak hiltzeko azpiegitura bat izateko, egun eskatzen diren azken teknologiak eta osasun-maila gorena dituenak.

4.- Aiarako Udalak mozio hau Eusko Jaurlaritzako sail eskudunari bidaltzea onetsi du.

8.- EH BILDU Udal-taldeak aurkeztutako mozioa “DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK. Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!” ekimenari dagokiona

Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du mozioa aurkezteko arrazoiak labur azaltzeko. Adierazi duenez, gizartea iruzurra pairatzen ari da elektrizitate-enpresen aldetik prezioak izugarri igo direlako, bere garaian konpainiak privatizatu zirelako, elektrikariak gero eta gehiago aberasten ari direlako eta Espainiako gobernuak hori ahalbidetzen duelako. Gaineratu du tresna propioak behar direla arazo hori konpontzeko, eta subiranotasun elektrikoa eskatu du.

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da eta emaitza hau izan da:

ALDEKO BOTOAK: 3 EH BILDU
KONTRAKO BOTOAK: 6 EAJ-PNV



ABSTENTZIOAK: 1 AIARA BATUZ

Mozioa gehiengo osoz baztertu da.

9.- EAJ-PNV Udal-taldeak aurkeztutako zuzenketa EH BILDU Udal-taldeak “DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK. Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!” ekimenari dagokion mozioari dagokionez

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du bere taldeak EH BILDU taldeak “DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK. Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!” ekimenari dagokion mozioari zuzenketa aurkeztu diola.

Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du zer diren trantsizio energetikoko politikak eta zer esan nahi duen energia garbia, merkea eta segurua izateak. Adierazi du ados daudela behartsuenei laguntzak ematearekin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dela zaila definitzea zer den energia garbi, merke eta segurua; hitzek esan nahi dutena esan nahi du terminoak. Zuzenketa honen helburua da Eusko Jaurlaritzari neurriak har ditzan eskatzea, gizarte-larrialdietarako laguntzetan handitu diren energia-gastu horiek kontuan izan ditzan.

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez, gaia bozkatu da eta emaitza hau izan da:

ALDEKO BOTOAK: 6 EAJ-PNV
KONTRAKO BOTOAK: 3 EH BILDU
ABSTENTZIOAK: 1 AIARA BATUZ

Eta honako hau

IKUSI DA. - EAJ-PNV Udal-taldeak aurkeztutako zuzenketa EH BILDU Udal-taldeak “DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK. Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!” ekimenari dagokion mozioari dagokionez.

IKUSI DA. - Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen eta Ingurumenaren Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2021eko urriaren 13koa.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**



LEHENENGOA. - EAJ-PNV Udal-taldeak aurkeztutako zuzenketa onestea EH BILDU Udal-taldeak “DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK. Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!” ekimenari dagokion mozioari dagokionez. Honak hau dio:

“Energia berriztagarrien hedapenari buruz EH Bilduk aurkeztutako mozioa ordeztuko zuzenketa.

D Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako Udaleko EAJ-PNV taldearen bozeramaileak, indarrean dagoen araudiaren babesean, energia berriztagarrien hedapenari buruzko EH Bilduk aurkeztutako mozioa ORDEZTEKO ZUZENKETA aurkeztu du:

ZIOEN AZALPENA

Berriki onetsi den klima-aldaketari buruzko legeak hainbat helburu ezartzen ditu, hainbat alditan egungo energia-eredua eta atmosferara egiten diren karbono-isurketak nabarmen aldatuko dituztenak. 2030ean amaitzen den lehen helburuan CO² isuriak % 23 murriztu behar ditugu, energia berriztagarriak % 42ra handitu eta energia elektrikoaren % 70 baino gehiago iturri berriztagarrietatik etor dadin lortu behar dugu.

Une honetan, abian da Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa zeinak arlo horrekin lotutako alderdi guztiak ordenatuko dituen; hala ere, aipatutako helburuak betetzeko, egungo planean aurreikusitako instalazioak abian jartzea bultzatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoa energia berriztagarrien ekoizpen propioaren azken postuetatik ateratzeko eta legeak ezartzen dituen helburuetara iristeko.

Horregatik guztiagatik, Aiarako udaleko EAJ-PNV Udal-taldeak energia berriztagarrien hedapenari buruz EH BILDU taldeak aurkeztutako mozioaren zuzenketa aurkezten du.

ZUZENKETA

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bere helburuak Europako Itun Berdearen helburuekin lerrokatzeko, Basque Green Dealen bidez garapen-eredu bidezko eta iraunkor batean aurrera egiteko.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta adostasun politiko eta sozial handienarekin egin dezala Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadin garatzen diren energia berriztagarrien proiektu guztiek indarreko lege-esparruan jasotako ingurumen-neurriak errespetatu eta bete ditzatela, eta Espainiako Gobernuaren Klimari buruzko Europako Legea eta Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea egokitzeko prozesua ireki dezatela, hura onetsi ondoren beharrezkoa balitz.



4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren aurkako Europako, Estatuko edo EAeko funtsak energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko proiektuetara bidera ditzala, Euskadiko Energia Estrategiaren irizpideen arabera.”

10.- Honako hauen berri ematea: 2021eko apirileko, maiatzeko, ekaineko, uztailko eta abuztuko kontaketa-akta, gastuen eta diru-sarreran balantzea, kartillen egoera eta kreditu-aldaketak

Ez da iruzkinik egin eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

11.- Alkatetzaren Dekretuen berri ematea

Ondoren, 2021/525 eta 2021/592 arteko dekretuen berri ematen zaio Udalbatzari, biak barne. Horren xedea honako hau da, laburbilduz:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/525.- Aiara Bolatoki Elkarte – 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/526.- Ama Birjina Zuria - 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/527.- Etxaurren Ikastolako IGEa - 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/528.- Lanteno Haraneko elkarte Kultural eta Artistikoa - 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/529.-FJ.A.G.- Lusiaondon etxebizitza eraisteko proiektua aurkezteko eskatutako luzapena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/530.- S.U.Z.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/531.- Murgako Administrazio-batzarra- 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/532.- Ibaizabal Gaztetxea - 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/533.- C.D. Bolos Lekubatxe - 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/534.- C.J. eta P. Santiago Apostol - 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/535.- Iñaki Isasi Taldea - 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/536.- Menagaraiko Emakume Taldea - 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/537.- Sociedad Ciclista Aiala - 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/538.- R.V.M.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungitzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/539.- Lexartzuko Administrazio-batzarra. - Lexartzuko hobi septikoa eta saneamendu-sarea berritzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/540.- E.V.C.- Salmantoneko etxebizitzan obrak egiteagatik hirigintza-urratzeagatik espediente berreslea amaitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/541.- Lantenoko Administrazio-batzarra. - La Blanca Baselizan balkoiko atea eta leihoak aldatzeko obrarako lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/542.- J.J.G.A. Rusticako OHZn bere jabetzako zenbait partzela salbuesteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/543.- I.L.B.- IZORIAN Aretxabala 5 etxebizitzara sartzeko egokitzapenerako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/544.- G.S.Q.- Soxon etxebizitza lur-higidurarako obrarako lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/545.-R.G.G.- Ibilgailuaren behin betiko bajagatik ordaindutako 2021eko TMIZ ordainagiriaren zatia itzuli.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/546.- Eguneko arretarako landa-zentroa kudeatzeko gastuen zerrenda onestea eta ordaintzekoa, 2021eko abuztua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/547.- Lantenoko Administrazio-batzarra. - 2021/541 Alkatetzaren Dekretua transkribatzean egindako akatsa zuzentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/548.- JA.B.P.- Arespalditzan gasolio-biltegia aldatzeko obrarako lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/549.- F.L.- Ibilgailuaren behin betiko bajagatik ordaindutako 2020ko TMIZ ordainagiriaren zatia itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/550.- 2021eko iraileko langileen eta alkatearen hilabeteko nominaren txostena onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/551.- M.U.P.- Luiaondon etxebizitza birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/552.- L.U.P.- Luiaondon etxebizitza birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/553.- A.M. U.P.- Luiaondon etxebizitza birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/554.- Valentín Santamarina Arechagak J.I. Álava Gorbeari jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioan pertsonatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/555.- M.I.C.F.- Arespalditzan etxebizitza baten atzealdeko sarbidea hormigoitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/556.-JF.L.O.- Murgan etxebizitzaren estaldura birgaitzeko obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/557.- R.G.S.- Luiaondon etxebizitza batean leihoak aldatzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/558.- M.B.A.- Izorian etxebizitzan arkupea eraikitzeko udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatuta.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/559.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.- 2021eko abuztuko kuota ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/560.- Udal-talde politikoentzako ekarpen ekonomikoa, 2021eko iraila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/561.- Luiaondoko etxebizitzan terraza estaltzeko obraren udal-lizentziaren espedientea amaitzea eta gordetzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/562.-MS.B.L. Ibilgailuaren behin betiko bajagatik ordaindutako 2021eko TMIZ ordainagiriaren zatia itzuli.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/563.- Udalkideentzako ekarpen ekonomikoa, 2021eko iraila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/564.- E.G.P.- Luiaondon etxebizitza birgaitzeko hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/565.- Ikastetxeetan obrak egiteko Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatzea- Udalaguntza-2021-22

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/566.- S.O.M.- Izorian lursaila ixteko obra-lizentzia partziala emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/567.- S.O.M.- Izorian lursaila ixteko obra-lizentzia partziala emateko birgaitzeko hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/568.- Amukatu Elkartea.- 2021eko dirulaguntza ematea, % 80ko ordainketa-agindua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/569.- AF.C.CH. - Luiaondoko etxebizitza baten komuna birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/570.- JI.B.V.- Arespalditzan etxebizitzaren teilatu-hegala handitzeko obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/571.- O.M.O.- Lantenon ehiza-txakurrak trebatzeko esparrua egiteko obrarako lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/572.- Nortegas E. Distribución SAU.- 3/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/573.- Ned Suministro GLP. SAU.- 3/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/574.- Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren zergadunen 2021eko errolda onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/575.- Soxoko Administrazio Batzarra. - Soxoko edateko uraren sarea birgaitzeko hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/576.- Luiaondoko erabilera askoko eraikina moldatzeko obraren Finantza Plana onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/577.- JM. J.A.- Olabazarreko etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa jartzeko udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/578.- Zuhatzako Administrazio-batzarra.- Zuhatzan uren saneamendurako sarearen obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/579.- F/2021/10 erregistratutako fakturak onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/580.- AMPA BABIO.- Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/581.- Udaleko funtzionarioaren gradu pertsonala aitortzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/582.- Soxoko Administrazio Batzarra.- Soxon bideak hormigoitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/583.-Gestión Deportiva Loiri SL. - Arte, kultura eta kirol arloko ikastaroak eta tailerrak emateko zerbitzu-kontratua esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/584.- Eguneko arretarako landa-zentroa kudeatzeko gastuen zerrenda onestea eta ordaintzea, 2021eko iraila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/585.- Aianox, SA- Eskatutako obra-lizentzia izapidetzeko dokumentazioa aurkezteko epea luzatzea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/586.- E.G.P.- Luiaondon etxebizitza birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/587.- I.B.V.- Aiarako Trikitixa Eskolaren zerbitzu-kontratua esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/588.- I.P.U.- Lantenoko etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa jartzeko obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/589.- S.M.M.- Lantenoko etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa jartzeko obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/590.- A.B.P.- Menagarain etxebizitza birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/591.- M.T.M.G.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/592.- Pilbacken, SL- Murgan industria-nabea eraikitzeke obrarako udal-lizentzia ematea.

Iruzkirik ez dagoenez, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua onetsi egiten duela Tokiko Erakundeen Antolakunde, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia. Horren arabera, alkate edo udalburuek, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan aurretiaz dagokion Informazio Batzordean jakinarazi ez diren gaiak sar ditzakete; oraingoan, Aiarako Udalak Arabako Kontratazio Zentral Foralak izapidetuko duen energia elektrikoaren hornidurari buruzko esparru-akordiori atxikitzeari buruz.

Gaia osoko bilkura honetan eztabaidatzea eta bozkatzea premiazkoa da; urria amaitu baino lehen, esparru-akordio honi atxikitzeke adostasuna adierazi behar da. Horrela, berriki jakinarazi digute kontratazio-zentraletik, beraz ezin da akordio hurrengo osoko bilkurara arte atzeratu.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) gaia gai-zerrendan sartzeko premia arrazoitzen du aurreko iruzkinetan azaldutako arrazoiengatik.

Lehenik eta behin, Udalbatzak gaiari buruzko eztabaidaren jatorriari buruzko iritzia eman du eta aho batez osoko bilkura honetan eztabaidatzea erabaki du. Beraz, honako puntu hau gehitu da:

12.- Onestea, hala badagokio, Aiarako Udala Arabako Kontratazio Zentral Foralak izapidetuko duen energia elektrikoaren hornidurari buruzko esparru-akordioari atxikitzea erabakitzea

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bere taldea ados dagoela; bereziki horrelako kontratuak lizitaziora ateratzea teknikoki oso konplexua delako, eta Aldundiaren akordioari atxikitzean, haiek arduratuko dira pleguak egiteaz eta eskaintzak ebaluatzeaz eta hori horrelako kontratuetan oso konplexua da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) bere taldeak aurkako botoa emango duela esan du. Izan ere, hainbat erakunderentzat aldi berean atera diren horrelako esparru-akordioak enpresa txiki eta ertainak kontratuaren tamainagatik kanpo geratzen direlako eta zailagoa delako klausula sozial eta ingurumenekoak jartzea.

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da eta emaitza hau izan da:



ALDEKO BOTOAK: 7: 6 EAJ-PNV eta 1 AIARA BATUZ
KONTRAKO BOTOAK: 3 EH BILDU

Honako hau dio:

IKUSI DA. - Udalbatzak 2021eko apirilaren 22an hartutako erabakiaren bidez, Aiarako Udalak Arabako Foru Kontratazio Zentralaren eskuratzeko-sistema zentralizatuari atxikitzea erabaki zuen, zehazten diren ondasunak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzeko, 1/2015 Foru Arauak araututako Kontratazio Zentral horren bidez.

IKUSI DA. - Arabako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralak udal honi berriki jakinarazi dio kontratazioa hasiko duela, energia elektrikoaren hornidura-zerbitzuaren esparru-akordio baten bidez.

AINTZAT HARTU DA. - Udal honek interesa du Arabako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralak energia elektrikoaren hornidura kontratatzeko izapidetzen ari den esparru-akordioari atxikitzeko.

AINTZAT HARTU DA. - Kontratazio Zentrala arautzeko Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2021 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/EB eta 2014/24/EB Jarraibideen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak emandako eskumenari jarraikiz.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA. - Aiarako Udala Arabako Kontratazio Zentral Foralak izapidetuko duen energia elektrikoaren hornidurari buruzko esparru-akordioari atxikitzea onestea.

BIGARRENA. - Erabaki hau bidaltzea Arabako Foru Aldundiko Zerbitzu Orokorraren Idazkaritza Teknikora, lizitazioa arautuko duten pleguetan sartzeko beharrezkoa den dokumentazioarekin eta datuekin batera.

13.- Eskaerak eta galderak



• Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ), talde politikoeak aurkezten dituzten mozioei dagokionez, esan du abstenitu egingo direla salbu eta beste bi talde politikoeak ados jartzen ez badira mozioaren testuari buruz; mozio asko daude goitik datoz eta aurkezten dira, baina ez dira adosten.

• Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esan du abeltzainek galdetu dutela proiekturen bat aurkeztuko balute ea Udalak lagundu eta izapideak erraztearen alde egingo lukeen. Nik baietz erantzun nuen, zerbait sortzen bazaie hurbildu eta aurkez dezatela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du udal honetan jende guztia hartzen dela, ez dagoela hitz egiteko edo elkartzeko arazorik konponbideak bilatzeko eremu honetan eta beste edozeinetan. Halere, gaineratu du badakigula Udalaren ekonomia zein den.

• Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) Iratxe Parro adnreari erantzun dio batzuetan mozioak adostu daitezkeela, baina beste batzuetan ezinezkoa dela nahi dutena guztiz kontrakoa delako eta ez dagoelako akordiorik. Gehitu du bete talde politikoeak mozio bat aurkeztu duenean landu egin duela, goragoko instantzietatik datorren alde batera utzita; konbentzitzen baditu esaten die, baina konbentzitzen ez baditu ez da aurkezten.

• Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) erantzun du beste bi talde politikoeak ados jartzen badira bikaina izango dela eta haiek aldeko botoa emango dutela; hala ere, EAJ-PNV taldeak gehiago osoa duenez, haren botoak ez dira beharrezkoak eta ez da akordiorik lortzen mozioen inguruan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) akordioak lortzen saiatzen direla erantzun du, baina posible ez bada, mozio bereziak aurkezten direla.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko urriaren hogeita batean.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.